

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Yolanda Barcinak azpimarratu du prestakuntza "lehentasunik handienetako bat" dela Nafarroarako komunitate bezala nabarmentzeko

Lehendakaria Volkswagen Navarra-Nafarroako Unibertsitate Enpresa Katedraren aurkezpenean izan da

Viernes, 16 de marzo de 2012

Nafarroako Lehendakariak, Yolanda Barcina Angulok, azpimarratu du Nafarroa komunitate bezala nabarmentzeko, herritarrak "prestatzea" ezinbestekoa dela. "Haien prestakuntzak eta trebakuntzak hertsiki lotuta egon behar dute lan-merkatuaren eta enpresen behar eta eskaeretara", gaineratu du.



Ezkerretik eskuinera: Francisco J. García, Carlos Sainz, Barcina Lehendakaria eta Ángel J. Gómez-Montoro.

Barcina Lehendakariak Volkswagen Navarra-Nafarroako Unibertsitate Enpresa Katedraren aurkezpenean egin ditu adierazpen horiek. Hamabi urtetan kalitatea hobetzen arituta, Kalitatezko Katedra izenarekin, hemendik aurrera, ikuspegi orokorragoa hartuko du.

Bildutakoen aurrean Barcina Lehendakariak nabarmendu du Nafarroan emandako azken bi egunetan "konfiantza handia" eman dutela Foru Komunitatearen etorkizunaren inguruan: Polo markako 6 milioi auto fabrikatu ditu; Volkswagen Navarra prestakuntza-zentroa inauguratu dute; Foru Gobernuak eta langileak trebatzeko eta kontratatzeko konpainiak hitzarmena sinatu dute, eta, azkenik, Katedra aurkeztu dute.

"Gure gizartea egiten ari den aurrerapenaren islarik onena da. Gero eta lotuago dago ezagutzarekin, ikerketaren eta talentuak sustatzearekin", gaineratu du. Bestalde, gogoratu du Nafarroako Gobernuak eta enpresak "esfortzu handia" egiten ari direla I+G+b arloan.

Lehendakariak emandako datuen arabera, azken bost urteetan Nafarroako automobilgintza-enpresen erdiak berrikuntza-proiektuak garatu ditu Nafarroako Gobernuarekin laguntzarekin. Horrela, 12,3 milioiko laguntza jasoko dute, 107 milioi euro baino gehiagoko inbertsiorako.

Aurkezpen-ekitaldian, besteak beste, hauek ere parte hartu dute: Carlos Sainzek, 1990. eta 1992. urteetako Munduko Rally Txapelketaren

txapelduna, eta 2010eko Dakar Rallyaren txapelduna izandakoak; Francisco J. García Sanzek, Volkswagen Taldeko Batzorde Betearazleko kidea eta Espainiako Auto-fabrikatzaileen Elkarteko (ANFAC) lehendakaria denak, eta Ángel J. Gómez-Montorok, Nafarroako Unibertsitateko errektoreak.

Enpresa Katedra

Volkswagen Navarra-Nafarroako Unibertsitatea Enpresa Katedrak eginkizun berezia du: ikerketaren eta berrikuntzaren aldeko apustua egitea. Sortu zutenetik, kalitatearen arloan aritu da, eta ehun ikerketa-proiektu baino gehiago, 50 artikulua zientifiko eta bederatzizko doktorego-tesi garatu ditu.

Aro berri honetan, bikaintasuna sustatuko du erakundearen alderdi guztietan, eta ikerketa arloetan lan sakonagoa egingo du, hala nola motibazio-sistemetan, ordainsarian, pizgarrietan eta inplikazioan; antolaketa-egituretan; lan-giroan eta pertsonen ekoizpenean duen eraginean; kontzeptu logistiko berrietan; lanaren alderdi ergonomiko-medikoan eta osasunean duen eraginean.